

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2024ko maiatzak 24 · 1314 zenbakia

## ALTXOR BAT OTAOLAN

www.urrategiinteriorismo.com  
Elder Auzopeltx 27 Arizpeña Arrieta 9

PROIEKTUAK  
SUKALDEAK  
BARNE DISEINUA



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua



# osasun gida

## Dentistak

**Odontologia  
Biologikoa**

**Miren Albistegi Sojo**

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52  
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria  
A. Esnaola**

Hortz Klinikak Clínica dental  
Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR  
943 20 72 17 - 688 432 808  
@egudent

**MIGUEL SEMINARIO**

**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702898

**arat.**  
ARAT ODONTOLOGIA CLINICA DENTAL

**ZURE  
IRIBARRE  
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4  
20600 Eibar  
943 201 831  
www.aratclinika.com

@arat\_klinika



**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLINICA DENTAL

**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologia / Lizentziatua  
943 20 72 17

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)  
943 537 076 - 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com  
www.eibarclinicadental.com



**Unzaga Plaza**

Hortz Klinikak - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea  
Unzaga plaza 5. 4º I. Eibar  
Tel.: 943 70 23 85

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**

99 Euzkadi Ate

- INDIATERAPIA  
- KIDU, LENGUAK  
- Tuzkia eta TRIZEMIA IA  
- 4. eta 5. etapa - DEPRESIOA

**FISIOTERAPIA  
ZENTRUA**

ARRAGUETA, 20  
Tlf: 943 53 06 42  
www.aneformal.com

**GASTESI  
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / laser teknologia



**bista eder**

clínica dental hortz klinikak

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistader.es



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Iribarreetan adituak**

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Thoa, 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Ginekologia

**Dra. Laura  
Martinez**



**Dr. Alejandro  
Recas**

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia  
- Obstetrizia  
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



**943-206776**

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Ekainaren 2an, domekan, Urtzi Abantzabalegi gogoratzeko egun berezia prestatu dute bere ingurukoek: Urtzi Rugby Eguna. Horrela, errugbi partiduak, hirugarren denbora, bazkaria eta bestelako ekintzak egingo dituzte herrian hain hutsune handia laga duen eibartarra gogoratzeko.

**eta kitto!**  
euskarako elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



## Hortik esanak



## O'Jays ez itxi!

Orain dela hilabete jakin genuen Untzaga kalean dagoen O'Jays taberna itxiko dutela kaleratze kolektiboen bitartez. Nagusiak, azken urtean, langileak oso modu desegokian izan ditu, beraien lan eskubideak errespetatu barik: besteak beste, soldata ordaindu gabe egon dira hilabete batzuk, lan egutegirik euki barik (askotan bezperan esaten zien noiz joan lanera), hitzarmenak jasotzen dituen plusak edota bajak ez zituen ordaintzen. Eta, hori gutxi balitz, langileengan lagatzen zituen bere ardura eta betebeharrak, izugarritzko antsietatea eta ezinegona sortuaz.

LAB sindikatuak argi utzi nahi du ez duela enpresen aldetik ematen den kudeaketa txarra langileen gain erortzea onartuko, jarrera horiek salatzen jarraituko dugu eta O'Jaysen itxieraren errudunak seinatzen. 7 langile kalean utziko ditu, beraien lanpostuak defendatzeko aukerarik eman gabe. **Borroka da bidea!!**

**Ana Sebal Agirregabiria (Eibarko LAB)**

Espainiako aktoreen %77 urtean ez da heltzen 12.000 euro gordin irabaztera, eta euren erdia 3.000ra ere ez dira iristen; beraz, lautik hiru pobrezia-ataritik behera daude. Euretako %7tik ez da pasatzen urtean 30.000 euro irabaztera heltzen direnen kopurua. Aktoreen %52k bigarren lan bat dute hilabetearen amaierara iristeko, nahiz eta kasu askotan lan horiek ez duten harremanik kulturarekin. Max Sariatako alfonbra gorrian azaltzen naizenean, argazki, traje eta elkarrizketen artean, jendeak ez du nire benetako irudirik ikusten, hor dagoena bere bizitzaren %95ean pobrea delako. Surrealista bada ere, jarlekuen patioan eserita dauden ia guztiak langabeak dira, lana izatearen zortea izan dutenen artean saria jaso dutenei txalotzen. Nahikoa zorte da lana izatea, saririk jaso gabe ere”.

**PAKO REVUELTAS, aktore eta zuzendaria**

Nire ile apaintzailea presondegira joaten da, presoei ilea mozten irakastera. Lan horregatik kobratu egiten du. Guk ere, Artedramako antzerki konpainian, presondegietara joatea erabaki genuen, eta han lanketa bat egitea. Guk ez dugu ezer kobratzen. Hor dago aldea. Beti bultzatzen ari gara, eta beti ez daukagu indar bera. Hala ere, guk gutxienez espero duguna errespetu apur bat da: gure lanarekiko errespetua.

**ANDER LIPUS, aktorea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PANPAN** → Harrokeria. "Aberastu danetik panpana ugari darabil".

**PANPANA HARTU** → Afanoso jarri, harropuzkerietan ibili. "Ez zaitte panpana hartuta juan horrengana, hori zu baiño gehiago da-ta".

# 1965

## Eibarko lehen Euskal Jaia

Maiatzaren 30ean, Umeen Euskal Jaia ospatu zen. 28 taldeko 700 ume etorri ziren kanpotik eta, hemengoei batuta, bost mila lagun baino gehiagoko kalejira egin zen. Gainera, karroza ezberdinak egon ziren parte hartzen. Egun osoko jaia izan zen, dena umeekin egindakoa.

FOTOPLAZAOLA.



## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 24</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>ZAPATUA 25</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>DOMEKA 26</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>ASTELEHENA 27</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>MARTITZENA 28</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUAZTENA 29</b>
<b>EGUNEZ   Iraundegi</b> (Calbeton, 19)
<b>EGUENA 30</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>BARIXAKUA 31</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI,** 2024an,  
**Lekunberri** (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Natargas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Francisco Javier Gamazo Errasti.** 72 urte. 2024-05-15.
- **Karmele Mugarza Zubikarai.** 95 urte. 2024-05-15.
- **Santos Saenz Rituerto.** 85 urte. 2024-05-16.
- **Antonio Sanchez Villega.** 87 urte. 2024-05-16.
- **Sonia Pildain Txurruka.** 82 urte. 2024-05-17.
- **Pilar Oterino Villasante.** 91 urte. 2024-05-17.
- **Juan Luis Ruiz Pelayo.** 74 urte. 2024-05-18.
- **Rosa Maria Sarasketa Mugerza.** 74 urte. 2024-05-19.
- **Amalia Garcia Puente.** 102 urte. 2024-05-21.

## Jaiotakoak

- **Lucia Arizmendarrieta Mtnez.-Alcocer.** 2024-05-13.
- **Markel Landa-Arroitajaregi Alberdi.** 2024-05-17.



## Ikasleek energia gutxiago kontsumitzeko klasean landu dituzten proposamenak aurkeztu dituzte udaletxean

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Eibarko Udalak, Debegesak eta Arrateko Andra Mari, Amaña, Urkizu, La Salle-Isasi, La Salle-Azitaín, J.A. Mogel eta San Andres ikastetxeek bat egin dute Eskolako Agentzia 2030 programarekin. Debabarrenean, guztira, 20 ikastetxe ari dira parte hartzen. Programaren baitan, hezkuntza komunitate osoari zuzendutako ekintzak antolatzen dira, eta aurten ere energia eskuragarria eta ez-kutsagarriaren gaia landu dute. Aurreko ikasturtean, ikasleek udalerriko energia diagnostia egin zuten, eta energia kontsumo

moa murrizteko hainbat proposamen egin zizkieten udal ordezkariari. Aurten, berriz, energia kontsumo arduratsua bultzatzeko pegatinak diseinatu dituzte ikasleek, eta atzo udaletxean egindako Pleno Txikian erakutsi zizkieten udal ordezkariari. Energia gutxiago kontsumitzeko, argiak itzaltzeko, ur gutxiago gatzatzeko, igogailua ez erabiltzeko, eta eraikinek berorik ez galtzeko atea irekitzeko (Portalean, udaletxean eta Orbea eta Ipurua kiroldegietan) pegatzeko asmoa daukate.

## Ipuruako Merkatal zapata-dendako langileek protesta egingo dute bihar eguerdian

Gipuzkoako Merkatal zapata-dendetako 50 langileek greba egiten jarraitzen dute, barixaku eta zapatuetan, oraindik ez dutelako lortu egoera konpontzea. Langileen arabera, “enpresak ez du hitzarmenik nahi eta edukietan ere ez du aurre-

rapausorik ematen. Mobilizazio egutegi bat adostu dugu egoera horri irtenbide bat eman ahal izateko, eta zapatuetan denda desberdin batean egiten dugu protesta”. Bihar Eibarren egongo dira, 12:00etatik 13:00era.

## Urkiko jaiak ospatzeko kontzertua antolatu dute auzokoek barixakurako

Ekaineko lehen asteburuan ospatuko dituzte jaiak Urki auzokoek eta barixaku gauerako kontzertua antolatu dute, hiru talderekin: The Pladures, The Jacintones eta Ad Eternum arituko dira, bata bestearen atzetik, 23:00etan hasita.

## Ibilaldiaren 46. edizioa ospatuko dute domekan Getxon

Aurtengoa Ibilaldiaren 46. edizioa izango da, eta Txonbo! da aukeratu duten lema. Urteak joan eta urteak etorri, Ibilaldiak bere jatorrizko arrazoiei eutsi die: Bizkaiko ikastolen jaialdia izatea, ikastolen hezkuntza-proiektua ezagutzera ematea, eta erronka berriei aurre egiteko baliabideak eskuratzea. Edizio bakoitzean ikastola desberdin batek antolatzen duen jai da Ibilaldia eta 2024koa Algortako San Nikolas Ikastolari egokitu zaio. Domekan, beraz, familia zein lagunekin euskaratik eta euskaraz ospatzeko eguna izango da. Ekitaldi gehienak Algortako erdigunean eta kostaldean egitea aurreikusuten dute. Informazio gehiagorako: <https://ibilaldia.eus/>.





## Aurkeztu dituzte sanjuanak iragarriko dituen kartela eta jaietarako egitaraua

Atzo aurkeztu zuen Udalak 2024ko San Juan jaien egitaraua. Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala Kultura zinegotziak eta Patxi Lejardi Jaie-tako zinegotziak emandako prentsaurrekoan esan zutenenez, urtero bezala, jaiekin lotura zuzena duten jarduera gehienak ekainaren 21etik 25era bitartean ospatuko dira, baina hilabete osoan zehar ekitaldi ugari egingo dira, “herriko talde, elkarte eta kolektiboek egiten duten lanari esker”. Urkiko jaiekin hasiko da ekaineko jai-giroa, hilaren Iean, eta San Pedro jaiekin amaituko da festa, hilaren 29an. Alkatearen berbetan, “jai hauek gure auzoen esentzia eta bizitasuna islatzen dute. Udalaren eta auzotarren arteko elkarlana ezinbestekoak dira gure herriari bizitasuna emateko”.

Programarekin batera, Sanjuanak iragarriko dituen kartela ere erakutsi zuten atzoko aurkezpe-

nean: Maria Ortiz Bañosek egin du *Dantzatzera*, edizio honetan lehiaketako sari nagusia irabazi duen lana; 11 eta 14 urte bitarteko kategorian, Hiart Vazquez Santosek irabazi du lehen saria, *San Juan suaren itzalak* lanarekin; eta 10 urte bitarteko parte-hartzaileen kategorian, Manex Aizpurua Plaza izan da irabazlea, *Tanborra jo ta su* kartelarekin. Bestetik, alkohol-larregi kontsumitzearen kontrako umorezko pegatina lehiaketan, Joseba Imanol Vilas Molinak eraman du saria, *NahiOK* izenekoarekin.

### Helduen danborrada 22:00etan hasiko da eta gazte koadrilen arteko jolasak itzuliko dira

San Juan bezperako gauean egiten den helduen danborradaren hasiera-orduaren aldaketa izango da aurtengo berritasun garrantzitsuenetako bat, normalean baino bi ordu lehenago irtengo direlako

Untzagatik, 22:00etan hain zuzen ere. Eta beste berritasun garrantzitsu bat gazte-koadrilen eskutik ailegatuko zaigu: ekainaren 23an zezen-plazan egiten ziren jolasak berriz antolatzeko eskaera behin eta berriz errepikatzen zela ikusita, aurten ekitaldi hori berreskuratuko dute, baina Untzagari egingo da.

Bestealde, txosnagunearekin ados ipintzea lortu eta gero, bertako egitaraua erabat ixteko gutxi falta zaiela aurreratu dute. Izan ere, bertako kontzertu eta bestelakoak Udalak ordainduko ditu: “Kontzertuak ixten ari gara, eta hainbat talderekin gaude harremanetan: reggae eta dancehall apur bat bartzin dituen euskal rap talde batekin, Andaluziako beste batekin... joango gara zehazten”.

Aurtengo omenduen artean Eibarko Klub Deportiboa egongo dela ere esan zuten, baina beste omenduak zeintzuk izango diren aurrerago jakinaraziko dute, agenda arazoak tartean, omenduen konpromisoak eta jaietan parte hartzen duten ekitaldiak nola uzartu oraindik aztertzen ari dira eta. Behin-betiko programa prest egon arte, Udalaren webgunean ikus dezakezue egitaraua.



## Aurretiazko borondateen inguruko 'Agurtzen' proiektua ipiniko dute martxan Esperientzia Eskolako ikasleek

Gaur goizean agurtu dute ikasturtea Ikasten Elkarteak antolatzen duen 19. Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleek, Armeria Eskolako aretoan diplomak banatzeko egindako ekitaldian. Kurtso honetan Zaldibar, Ermua, Elgoibar, Ondarroa eta Eibarko ikasleak egon dira, 24 guztira (lau gizon eta 20 emakume). Klasera joateaz gain, 2023-24 ikasturtean zehar proiektu soziala lantzen eta prestatzen aritu dira, eta emaitza *Agurtzen-Voluntades anticipadas* izenekoak izan da. Azaldu dutenez, “heriotzaren gaia oraindik tabua den arren, gero eta gehiago gara duintasunez hiltzeko eskubidea aldarrikatzen dugunak. Aurre-

tiazko borondateen dokumentua (bizi-testamentua ere esaten zaio) bide hori errazten digun tresna da. Konturartu gara gure inguruko jendeak zalantza asko dituela honen inguruan, eta informazio-kanal ofizialak gainezka daude. Gainera, ez da erraza horietara iristea. Horregatik, proiektu honekin informazio-gune bat sortu nahi dugu, Aurretiazko Borondateen Dokumentua zer den eta nola egin jakin nahi duten pertsonentzat. Ekainaren 5ean hasita, Untzaga Gizarte Etxean (Arrate aretoan) egongo gara hilabete bakoitzeko 1. eta 3. eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, gerturatzen direnei informazioa emateko”.

## Eskolarteko Skate Zirkuituak Eibarren egingo du azken geldialdia

Asteburuan amaituko da Eskolarteko Skate Zirkuituaren denboraldia eta Eibar izango da horren lekuko. Izan ere, domekan jokatuko da zirkuituaren 4. eta azken proba, 10:00etatik 18:00etara, Sautsiko skate-parkean. Eibarko Ipar Skate eta Surf eskolak antolatu du Eskolarteko Skate Zirkuituaren azken proba eta, euren berbetan, “patinatzaile guztiek, adina eta sexua edozein direla ere, skate-lehiaketetan parte hartzeko aukera izatea eta skate-txapelketetan, musikan, giroan, trikimailuetan eta sarietan lehiatzeak dakarren esperientzia bizitzea da helburua”. Antolatzaileriek diotenez, “Goiko mailetako sailkapeneko hiru txapelkunek txapelketa berezi batean lehiatzeko aukera izango dute, Espainiako txapelketan lehiatzeko txartela lortzeko aukeratzuz”.



## Hasi da ikasturte berrirako matrikulazioa Eibarko Udal Musika Eskolan

Aste honetan, eguaztenean zabaldu dute hurrengo ikasturterako matrikulazio epea Eibarko Musika Eskolan. Informazioa eskuratzeko musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus helbidera idatzi daiteke, edota 943 70 27 25 telefono zenbakira deitu.





## Euskal Jaiko pala txapelketaren finalak bihar goizean Astelenan

Eibarko Paleta Goma Txapelketako III. edizioko finalak jokatuko dira bihar, 11:00etatik aurrera, Astele- na frontoian. Martxoan hasi zen txapelketak Euskal Jaien giroan amaituko du ibilbidea bi katego- rietan jokatuko diren final haun- diekin. Batetik, maila herrikoian Sarobe eta Beton bikoteak Larra eta Korta izango dituzte aurrez aurre; eta irekian, bestalde, Osa eta Gui- neak osatutako bikoteak Irizar eta Egibururen aurka lehiatuko dira. Bi partiduen bitartean, antolatzaileek luntx ederra eskainiko diete gerturatzen diren guztietari. Aukera polita, beraz, bihar goiz-eguerdiaz gozatzeko Katedralean.

## Pentsio duin eta publikoen aldeko borrokaren oihartzuna Europaraino doa

Astelehenean, Eibarko Pentsio- dunen Taldeak antolatuta astero egiten den elkarretaratzean 130 bat lagun elkartu ziren, pentsio pu- bliko eta duinak eskatzeko. Horrez gain, Europako pentsioen gaiari heltzeko, Pentsiodunen Platafor- men eta Sindikatu Autonomoen Topaketa egiten ari dira Sarriko- ko Ekonomia Fakultatean (Bilbo), Euskal Herriko Pentsiodunen Mu- gimenduak antolatuta. Atzo hasi

zen jardunaldian 100 bat lagunek hartu zuten parte, “besteak beste, pentsiodunen plataformetako eta estatuko hainbat herri eta erkide- gotako sindikatueta ordezkariek, Europako beste herri batzuetako sindikatueta pentsiodunek, eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mu- gimenduko ordezkaritza zabal ba- tek. Sindikatueta kideek eta Eus- kal Herriko hainbat gizarte taldek ere hartu dute parte”.



## Debarreneko emakume ekintzaileen esperientzia eta bizipenak

Debarreneko emakume ekintzaile- leen esperientziak ezagutzera ema- teko “Konektatuz” topaketa egin zen eguenean Errebalen, ASPEGI Gipuzkoako Emakume Enpresa- buru, Profesional eta Zuzendarien Elkarteak antolatuta. Ekitaldian parte hartu zutenen artean hiru eibartar egon ziren: Maite Aperri-

bay Helmet Houseko sortzailea, Elena Guisasa kiropraktikoa eta Esther Velasco HRE Hidraulic-eko gerentea. Eta moderatzailea ere eibartarra izan zen: Leticia Sanchez, Kinetixen sortzailea. Eskualdeko aurpegi ezagun asko bertaratu ziren ASPEGIk antolatutako topaketa horretara.

# Lantegi-etxeen lekuko

Eibarko ondare industrialaren lekukoa da Zamakola lantegi-etxea. Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen 2015ean, Sailkatutako Kultura Ondasuna dela argudiatuz eta, tailerraren gunea zaharbertiratu ondoren, bisitatzeko aukera dago. Guk Ilde Zamakola Aristegirekin egin dugu bisita eta bere familiaren eta lantegi-etxearen jardunaren berri eman digu.

**O**taola etorbidearen 28. zenbakian altxor bat ezkututzen duen etxe hori bat dago. Espaloi estuan aurkitzen dugu bertan sartzeko atea eta barruan ondo gordetako tailer bat aurkitu dezakegu. Ez da erraza herrian zutik jarraitzen duten lantegi-etxeak aurkitzea, are gutxiago hain egoera onean. Goian, bi pisuko etxea (eta ganbara) du eta behean 36 metro karratuko tailerra.

Ilde Zamakola Aristegik egin digu harrera, Pablo Zamakola Arizagaren alabak. Azken horren aitona, Felipe Zamakola Arregik, sortu zuen lantegi-etxea 1870. urte inguruan. “Ego ibaiia pasatzen da etxearen albotik eta hori izan zen tailerra bertan eraikitzeke arrazoi nagusietako bat, uraren indarra behar zutelako makineria martxan jartzeko, ur-errotaren laguntzarekin”, azaldu digu Ildek. “Tailerraren hasierako urteetan ez zegoen



fabrika askorik inguruan, eta oilategia eta ortua zeuden hurbil. Beraz, ortua ureztatzeko kanala zegoen eta makineria mugitzeke ere erabiltzen zen”, gehitzen du. Horrela, 1914. urtera arte uraren energia bakarrik erabili zuten bere jardunerako. Energia hori, oster, batzuetan ez zen nahikoa izaten eta egurrezko palanka batzuk erabiltzen zituzten sabaian, uhal batzuk poleekin askatzeko. “Horrela, makinak behar ziren heinean erabiltzen ziren, ezin baitzuten denek batera funtzionatu”, Ildek azaldu digunez.

Esan bezala, 1914an energia elektrikoa erabiltzen hasi ziren, ezkerreko leihoan motor elektrikoa jarri. Horrela, makina guztiak batera funtzionatzen hasi ziren, baina oraindik ez zen nahikoa eta, 60. hamarkadan, makina bakoitzean motor elektriko bat jarri zuten.

Errekako ura errotara eramaten zuten ubidea estalita dago orain,



Otaola kalean dago Zamakolatarren tailer-etxea. EKHI BELAR

etxea duelako gainean, baina gaur egun ere ura nondik iristen zen ikusi daiteke oraindik. Izan ere, lantegi-etxera bisita eginez gero, ubidera ematen duten zenbait zulo eta sarbide ikusteko aukera dago. Baita ur-gordailua ikusteko aukera ere.

#### **Kanoiak eta eskopetak**

Felipe Zamakolak eskopeten kanoiak egiteko sortu zuen lantegia. “Eskopeta bat egiteko lau gremio ziren beharrezkoak. Kanoiak, kulatak eta txispak egin behar baitziren, eta gero den-dena muntatu”, azaldu digu Ildek.

Felipek fabrika laga ondoren, Pablo Zamakola Uriarte semeak hartu zuen bere lekukoa. Honek ‘Zamakola e Hijos’ enpresa sortu zuen Juan, Silvestre, Pablo, Francisco eta Candido semeekin, baina Gerra Zibila hasi zen eta Pablo aitak eta Candido semeak bizia galdu zuten. “Aitarengandik ez dut ezer

**>>> Zamakola lantegi-etxea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu Ilde Zamakolak eskaini digun bisita gidatuarekin**

**>>> Lantegi-etxea XIX. mendean sortu zen eta eskopeten kanoiak egin ziren bertan batez ere**

entzun gerraren inguruan”, diosku Ildek, gudak eraginako trauma gogoratuz. “Beste toki batetik iritsi zaizkit gerrako kontuak”.

Gerra Zibilaren ostean, familiak eskopetak egiten jarraitu zuen ‘Zamakola Hermanos’ izen sozionalarekin, eta 1954. urtean Bartzelonako ‘E. Schilling y Cia’ enpresari erositako ‘Jabali’ marka merkaturatu

zuen. Bitxikeria bezala, Miguel Delibes idazleak eduki zuen lehen eskopeta ‘Jabali’ markakoa izan zen.

Pablo Zamakola Arizaga (Ildearen aita) izan zen familiako azken maisu armagina, eta beste lau kiderekin (Emeterio, Prudencio, Benjamin eta Carmelo) aritu zen lanean Otaolako lantegiak martxan jarraitu zuen azken urteetan.



Familiaren tailer-etxea erakutsi zigun Ilde Zamakolak. EKHI BELAR

## >>> Zamakola familiako zenbait belaunalditako kideek egin zuten lan lantegi-etxean

## >>> Armagintzaren Museoak landu dituen bideo batzuetan familiaren eta lantegi-etxearen historia ezagutzeko aukera dago

Fabrikak 1969. urtean eten zuen bere jarduna eta Zamakolatarrak 1982. urtera arte jarraitu zuten eskopetak fabrikatzen. Izan ere, Mendiguren eta Zarrua kanoiak egiten hasi zirenean, errentagariagoa zen egindako kanoiak erostea. Dena dela, Otaola hiribideko etxeak zutik jarraitu zuen eta Ildek, bere aitaren gogoak asetu asmoz,

lantegi-etxea egoera onean mantendu zuen.

**Eskopeten kanoiak egiteko artea** Ildek azaldu digun bezala, “bertako jarduna ez zen kanoiak eta eskopetak egitera mugatzen, tailerrean askoz ere gauza gehiago egiten baitziren”. Izan ere, Zamakolatarren jardun nagusia hori izan arren,

kanoiak egiteko altzairuarekin lanketa handia egin behar zuten eta, gainera, bestelako lanak ere egiten zituzten.

Kanoiak egiteko prozesua azaldu digu Ildek. Bere berbetan, hagaxkak Bilbotik heltzen ziren, Uribecheverria fundiziotik. “Altzairu berezikoak ziren eta bi metroko luzeera izaten zuten”, diosku.

Hagaxkak jasotzen zituztenean sutegira eramaten zituzten, “sutaira”, eta han zatitu egiten ziren. “Pieza batetik hiru irteten ziren”, Ildek azaldu digunez, eta ondoren piezei kokka jartzen zitzaizen atzeko aldean. Gainera, ezer egiten hasi aurretik, altzairu zatien kanpoko aldea leundu egin behar zen.

Suari dagokionez, Ildek esan digu harrikatzarekin egiten zela lehenik, eta gero gasoleoa erabiltzen zela. “Sutai barruan adreilu errefraktarioa zegoen, eta urtero edo bi urte-tik behin aldatu behar zen, apurtu egiten zirelako”, gehitzen du.

Hagaxkak sutik ateratzerakoan, altzairu zatiak hozteko, bale-olioan sartzen zituzten. “Ez uretan”, azpimarratzen du Ildek. Eta ondoren, zorroztu egiten ziren.

Kanoi-zuloak egiteko, makina zulatzailean kanoia biraka jartzen zen, eta alde batetik eta bestetik barautsak elkartzen joaten ziren poliki-poliki. Ondo kalkulatuta zuten nola egin. Izan ere, puntu batean, barautsa ez apurtzeko, punta bat atera egiten zuten eta besteak jarraitzen zuen bidea egiten, kanoia zulatuz. Gero, otxabu bat pasatzen zen kanoi-zuloa berdintzeko.

Nabaria da prozesu horretan altzairu zatiek galtzen zuten pisua: Ildek zulatutako eta zulatu gabeko zati bana eman dizkigu eta alde-ratu ahal izan ditugu.

Hurrengo pausoa kanoia barrutik zuzentzea eta kanpotik leuntzea zen, bertan zegoen harri handi batekin. Gainera, kanoiaren zulaketaren marruskadura leuntzeko, lantegiaren beheko aldean hodiak jarri zituzten, eta handik taladrina makina guztietan zehar banatzen zen.

Pablo Zamakola Aristegi Ilderen anaiak Armagintza Museoak landutako bideo batean azaltzen duen bezala, bi kanoi mota egiten zituzten bertan: kanoi arrunta eta Demiblock kanoia. “Demiblock kanoiak koskorra kanoiari erantsita zeukan eta askoz zailagoa zen lantzeko, pieza osoa biratzen zenez kontu handiz ibili behar zelako. Bestela koskor horrek atzamarra harrapa zezakeen. Baina langileek trebetasun handiz egiten zuten”, azaltzen duenez. “Gainera, sasoi batean kanoiak elkartu egiten zi-



Eskopeten kanoiak egiten zituzten Zamakolatarren tailerrean. EKHI BELAR

ren, baina Demiblockak ez, kanoi arruntak bakarrik, azken horiek Maria Angela kaleko tailerrean egiten zirelako”, azpimarratzen du.

Herriko iragan industrial eza-gutzeko toki ezinhobea da Zamakola lantegi-etxea eta gozamena da hango jardunaren lekuko izan direnen azalpenak entzutea. Ez galdu bisitatze aukera.

BIDEOA





## Koro Irazu bazkideak irabazi du ...eta kitto!-k zozketatutako oparia

...eta kitto! Euskara Elkarteak bazkideen artean zozketatutako laugarren oparia, Roomba aspiradora, bereganatu du Koro Irazuk. Maiatzaren 31n egingo da hurrengo zozketa eta saria Soraluzeko Txurruka jatetxean bi lagunentzako bazkaria izango da. ...eta kitto! Euskara Elkarteak egiten diharduen zozketetan parte hartzeko ez da izenik eman behar, elkarteko bazkide guztiak sartzen baitira zozketan.

## Kalean da maiatzeko Txikitto!, Ipuerre lehiaketako ipuinekin



Aurreko astean jaso zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek Txikitto!-ren maiatzeko alea. Ipuerre Ipuin Lehiaketak hartzen ditu orri gehienak, azalaz gain, ipuin irabazle guztiak agertzen baitira barruko orrietan, sari-banaketa ekitaldiko argazkiekin batera. Ekainekoa izango da ikasturteko azkeneko alea.

## Berbalagunak Zerainen izan dira asteburuan

Berbetan mintzapraktika-programako berbalagunak ikasturteko azkeneko irteera egin zuten zapatuan. Zerainera joan ziren, Burdinaren Mendia deritzona bertatik bertara ezagutzera. Aizpeako meategiak daude bertan; izan ere, XI. mendean hasi eta mendeetan zehar, Aizpeako 150 hektarea zabaletan burdina ustiatu izan da eta, ustiaketa horren ondorioz, paisaia berezi eta ederraz goza daiteke. Ingurua eta burdinaren prozesua ezagutu ondoren, Zeraingo eliza eta museo etnografikoa bisitatu zituzten, elkarrekin bapo bazkaldu eta Eibarrera itzuli aurretik. Irteera hau izan da Berbetan programako ikasturteko azkena; dena dela, mintzapraktika-taldeek elkartzen jarraituko dute ekainera arte, astean behin, euskara praktikatzeko.

Bestalde, ekainaren 7an ekitaldi berezia antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak berbalagunen-



tzat: "Aitortza eskaini nahi diegu, euskarari egiten dioten ekarpena saritu eta errekonozitu. Euskara praktikatzera eta premia hori dutenei laguntzera etortzen diren euskaldunak sarituko ditugu".



## BAZKIDE zertarako?

Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko  
ekimenak antolatzeko



### **Harixa Emoten literatur tertuliak**

*Juan San Martin liburutegiarekin elkarlanean euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko eta euskal literatura eta euskal idazleak ezagutzera emateko antolatzen dugun irakurketa-taldea da. Urrian hasi eta maiatzera arte zortzi tertulia egiten dira, hilean behin, Portalean. Taldeko kideek idazlearekin batera aztertzen dute irakurritako liburua, Ainhoa Aldazabal adituaren gidaritzapean.*

# zarelako **para**

*Egin zaitez bazkide!*

# “Eibar herriak eta futbol taldeak liburuaren trama osatzen lagundu didate”

GEMA BAQUÉ • Idazlea



Datorren martitzenean Gema Baqué eibartarrak “Los años robados” bere lehen liburua aurkeztuko du Portalean. Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta idazleak Miguel de los Toyos alkate-ohia izango du lagun. “Berari eskatu nion Eibarko figura bat behar nuelako aldamenean. Miguelekin asko kointziditu nuen palkoan Eibar FT-an lanean nenbilela. Beste batzuek alkate figurarekin lotzen badute, nik futbolarekin lotzen dut; horrela, herriak eta futbolak bat egiten dute berarengan”, dio egileak. Alberdaniaren eskutik kaleratutako liburua salgai dago gure herriko Yraolagoitia liburudendan eta Burbujas y más paper-dendan.

**L**iburuarekin pretentsio handirik ez duela dio Baquék: “Irakurleak nik bezain ondo pasatzen badu, konforme”. Harro dago egindako lanarekin eta pozik irakurle batzuekin izandako feed-back lanak erakutsi dionarekin: “Asko engantxatzen duela esan didate, gertakari larriak izanda ere oso erraz irakurtzen dela”. Entretenigarria izatearekin bera konforme.

## Zergatik idatzi duzu “Los años robados” nobela?

Zergatik ez? Nerabea nintzenetik idatzi izan dut, inoiz izan ez bada ere formatu luzeetan; une desberdinetan idatzi dut, poesia dezente, eguneroko edo diario pertsonalak. Orain dela urte batzuk esperimentatzen hasi nintzen formatu motzeko gauzekin, ipuinak-eta idatziz. Eta hortik etorri zen egun batean nobela bat ere idatzi nezakeela fantaseatzen hasi nintzen uea. Baina, aldi berean, jubilatu arte ez nuela denborarik izango uste nuen. Bestalde, liburuko istorioaren ideia aspalditik izan dut buruan, noizean behin bertako pertsonaiak, eszenak... buruan gordetzen joan naizen neurrian. Eta, azkenean, 2020an ekin nion liburuari, pandemia batean.

## Nondik izenburu hori? Titulua liburuaren adierazgarri da?

Titulua oso berandu etorri zitzaidan burura. Ia bi urte egin nituen lehenengoko zirriborroak prestatzen, tartean huts tarte ugari zirela, idatzi ere ez dudalako jarraian egin. Beste urte eta erdi eramanean dut zuzen-

ketak egiten; eta, behin hori amaituta ere, ez nuen titulurik. Errebisatzerakoan azaldu zitzaidan “los años robados” esaldi hori, eta egokia zela iruditu zitzaidan, adierazgarri da.

## Irakurleak zer aurkituko du liburuan? Zein da gai nagusia: familia, sekretuak, futbolaren ingurunea...?

Espero dudana da irakurtzen ondo pasatzea. Gai nagusiak familietako sekretuak dira, gezurrak... eta horiek dakartzaten hutsuneak, traumak eta bat ez etortzeak; arazo larriak azken batean. Istorioaren gaia sakona da eta, horregatik, leuntzeko zertxobait eta, aldi berean, entrenigarriagoa egiteko, beste azpitrama batzuk sortu ditut: amodio istorioa, lepokoaren lapurketa edo desagerpena, familia harremanak eta futbola. Hori guztia kontrapuntu koloretsu bezala, gatazka-rena konpentsatzeko.

## Erraz egin zaizu arlo bi horiek lotzea?

Eibarren lanean hasi nintzenean ikusi nuen lotu nintzazkeela biak. Hasieran nobela amodiozkoa izan behar zen, asko gustatzen zaidan Londresen kokatua gainera. Baina Eibar FT-an lanean hasi nintzenean hor kokatu nuen istorioa, batez ere elkarrekin bi ideiak, futbola eta trama, lotzea ahalbidetzen zidalako; biak elkarbanatu eta gurutzatzeko aukera nuen, eta zentzua hartzen zuen. Futbolak, bestalde, pertsonaien egoera emozionala deskribatzeko aukera eman dit: Eibar FT-k antzerakoa bizi izan baitzuen I. Mailan egin zuen aurreneko denboraldian, lehen itzuli zoragarriari bigarreneko desastreak jarraitu ziolako.





Irakurleak berak tramarekin bezain beste gozatzea gustatuko litzaioke liburuaren egileari. YANIRE SAGREDO

### **Mezurik bidali nahi izan duzu? Gauzak berez ez dira desagertzen, akaso? Hobe dela zezenei adarretik heltzea?**

Egia esateko, inori ez diot mesurik bidali behar. Nobelan XX. mendeko gertaera batzuk salatzen dira, tristeak eta larriak izan zirenak... Baina orain hura kritikatzeko erraza den bezala, gauza bakoitza bere garaiarekin lotu behar da, orduko gizartea eta gaur egungoa desberdinak baitira, une batean zein bestean bakoitzak ahal duena egiten du-eta. Hala ere, gertaerei ez diet ihes egiten, eta aipatu eta salatzen ditut.

### **Nobelako istorio horretatik zer ondorioztatu daiteke?**

Aurreko galderan adierazi duzuna, zezenari adarretatik heldu behar zaiola. Gauzak ezkutatzeak kalte egiten digula. Egiak garrantzi eta pisu berezia du eleberrian, denbora guztian agertzen da behin eta berriro, batez ere gezur asko dagoelako bertan. Arazoei begietara begira aurre egitea, erraza izan ez arren, merezi du, asko laguntzen duelako.

### **Zenbaterainoko garrantzia du Eibar herriak hor? Eta futbol klubak?**

Askok, batek zein besteak. Gatazkak ere ez dira no-

## **“XX. mendeko gertaerak epaitzerakoan orduko testuingurua izan behar da kontuan, oraingo gizartea desberdina baita”**

belaren bigarren zatiraino agertzen. Lehen zatian irakurlearen arretari eutsi nahi izan diot: bertan ez dira gauza asko gertatzen, eta eleberria motelago doa. Gero, ordea, azkartzen joango da, erritmoa hartzen, batez ere zer gertatu den dakizunetik aurrera. Bigarren zati horretan lepokoak, amodio istorioak eta beste osagaiek indarra hartzen duten neurrian. Herriko giroak eta futbol taldeak kolorea emango diote horri guztiari, ezer gutxi gertatuta ere laguntzen dutelako.

BIDEOA



Lehenengo erdia kostunbristagoa da, Eibar zelakoa den erakusten du-eta.

### **Derrigorrez izan behar zen hori eszenatokia? Beste nonbaiten kokatu zenezakeen?**

Eibartik kanpo ere garatzen da istorioa: Deba, Donostia, Madril, Iruñeak badu bere garrantzia... Pertsonaiak mugitzen direlako. Eibar barik ere trama ez zen aldatuko, baina askotan gakoa ez da zer kontatzen duzun, zelan kontatzen duzun baizik.

### **Zure inguruko bizitzan oinarritu zara? Fikzioa eta errealitatea nola nahastu dituzu?**

Errealitatean gertatutakoak eta fikzioa, biak nahastu ditut. Pertsonaiak fikziozkoak dira, Urdaneta familia asmatutakoa da... Baina badira Eibarko enpresa famatuak, gertaera historikoak... errealitatearekin zerikusia dutenak. Trama, azken batean, asmatutakoa da.

### **Zenbat denbora kendu dizu liburuak? Noiz hasi zinen?**

Prozesu luzea izan da. Familia ere badut, eta lanean nabil. Baina, lehen esan bezala, 2020an ekin nionean bi-hiru hilabetetan, lan barik nengoenez, gutxi gorabehera nobelaren lehen zirriborroaren herena egin nuen. Eskerrak horri, konturatu nintzelako idatzi nezakeela; azkar joan zen guztia, ordura arte argi ez nuenean gai izango nintzen. Uztailean lanean hasi nintzen eta prozesua asko gelditu zen, ondoren neguan berriro hartu arte. Ondoren, ahal izan dudanean idazten joan naiz. Asteburuetako idazlea naitzela esango nuke, batez ere udakoa. Nire erritorea joatea dut gustuko.

### **Tartean idatzi duzu besterik?**

Bai, ipuin motz batzuk. Euren lehen zirriborroa neure kabuz eginda ere, gero zuzenketak egiten Bilboko La Saturnina idazketa-tailerrean ibili naiz, Alex Oviedo idazlea zuzendari dugula. Bost-sei ikasle gara, astero zeozer lantzen dihardugunok, ipuin motzen inguruan batez ere. Bertan iritziak partekatzen ditugu, ideia berriak sortzen...

### **Baduzu bigarren eleberriren bat idazteko asmorik? Nondik joko luke liburu horrek?**

Aurrekoari helduz, La Saturninan badugu, ikasle guztion artean, ipuin motzak erabiliz errelato bat



egiteko proiektua; horko erdiak ere zuzentzeko prozesuan ditut. Nobei dagokienez, esku artean dudan bigarrena II. Munduko Gerran kokatuko dut, nazien Alemanian. Asko disfrutatzen dut idazten..

### **Zein idazle duzu gustoko? Zein irakurketa mota gustatzen zaizu gehien?**

Denetik irakurtzen dut, eta ez dut genero berezirik. Istorioa ondo kontatuta badago, erritmo egokia badu, interesantea egiten bazait... aurrera! Hasieran klasikoei heldu nien: Lorca, Machado, Valle Inclán, Julio Verne, Umberto Eco... Baina niretzat inflexio-puntua García-Márquezen "Cien años de soledad" liburuak markatu zidan. Liburuetatik aparte, zinea ere oso gustoko dut, eta inspirazio iturritzat joko nuke.

### **Euskaraz idaztera animatuko zinateke?**

Askoz gehiago kostatzen zait. Liburu honekin aukera hori planteatu ere ez nion egin nire buruari. Berez, banituen nire zalantzak, pertsonaiak zelan garatu... Zailtasun asko ziren tartean, eta hizkuntza beste bat izango zen. Ez euskara delako, gaztelaniak gauza bera planteatu dezake. Urte asko egin ditut atzerrian, bizitza kanpoan egin dut, lanean ez dut euskara erabiltzen... Baina saiatuko naiz, aurrera begira gustatuko litzaidake.



MARINA PEROSANZ

## 30 minutu

Beti aurkitzen dut jendea kiroldegiko igerilekuan. Bertan elkartzen gara igeri egitera, ur gainean egotera. 25 metro alde batera, eta gero bestera. Nahi adina aldiz. Gure gorputzak hainbat aldiz gurutzatzen dira. Nik ez ditut ezagutzen, eta haiek ez naute ezagutzen ni. Hala ere, ziurrenik, noizbait kalea partekatzea egokituko zaigu. Bakoitza bere erritmora, bakoitza bere estilora. Baina denok, nola edo hala, helburu berarekin: ez itotzea.

Nik 30 minutu ematen ditut igerian. 30 minutu. Hori da nire buruari eskaintzen diodan denbora ez itotzeko. Igerilekutik kanpo, arnastetura joan naiteke, ez naiz konturatu ere egiten. Hortik kanpo, kezka gainezka nabil; igerileku bat betetzeko adina kezka. Egiatan, bertan ere ito nintekeen; izan ere, tamalez, ez da nire lehenetasuna burua atera eta arnasa hartzea.

Horregatik joaten naiz ni kiroldegiko igerilekura. Agian ondoko kalean dagoen emakumea ere horregatik joaten da. Ur gainean egotera, kezken gainean egotera, kezka horietan ez itotzera. Aldagelako ispiluaren aurrean imajinatzen dut emakumea: Ilea motots batean jaso eta bainu-txanoa kontu handiz janzen, uretako betaurrekoak ondo kokatzen. Prest dagoenean, eskailerak azkar igo, ez baitu galtzeko denborarik, eta azkenean, uretan murgiltzen. Berarekin zekartzan kezka alde batera utziz eta arreta guztia ez itotzean jarritz.

Esango nuke igerilekuko urak kezken pisua arintzen duela, uretan ez baitirudite hain pisutsuak, hain garrantzitsuak. Edo beharbada arnasa hartzea da gakoa. Auskalo. Agian, gure lehenetasuna arnasa hartzea izan beharko litzateke, egunerokoan ez itotzen arduratu behar ez izateko.

Nik 30 minutu ematen ditut igerian. 30 minutu. Hori da nire buruari eskaintzen diodan denbora arnasteko. Gustatuko litzaidake 30 minutu horietan bizitzea. Ez dut ondoko kaleko emakumea ezagutzen, baina espero dut berak ere arnasa hartzea, 30 minutu hauetan bada ere.

**“Esango nuke igerilekuko urak kezken pisua arintzen duela, uretan ez baitirudite hain pisutsuak, hain garrantzitsuak. Edo beharbada arnasa hartzea da gakoa”**

# Entseguen arabera, inoiz baino dantzari eta txistulari gehiago izango da

2024ko Euskal Jairako, Eibarko Klub Deportiboaren 100. urteurrena ospatzeko asmoarekin, 100 bikote baietz arnonka bota zuten Kezka Dantza Taldekoek. Kopuru hori motz geratuko da "ikusita entseguetan izan den giroa eta elkarrekin dantza egiteko ilusioa; uste dugu 125-130 bikote inguru, beraz, 250 dantzari gora bilduko garela maiatzaren 26an Untzaga plazan" diote.

**U**rtarrilean hasita Errebalen egin duten entsegu bakoitzak jai bat izan da: "Euskal Jaiko domeka egun handia izango da, baina aurretik elkarrekin bizi izan ditugun dantza-egunak ere halakoak izan dira; hamar entsegu, hamar festa handi, eta domekan hamaikagarrena".

Dantzariak dantzarako prestatu diren bezala, txistulariek ere tresnak puntuan jartzeko gonbidapena ondo aprobetxatu dute. Sasoi bateko

eta gaur egungoak entseguetan aritu dira aurtengo Euskal Jaian kaleak inoiz baino gehiago txistu soinu betetzeko. Zapatuko eguerdi partean txistulari talde ederra kalez kale ibiliko da eta, jakina, domekan Euskal Jaiko kalejira nagusian hartuko dute parte..

## Iribastik Imotzera

Eibarko dantza taldearen historian garrantzi berezia izan duen erreperitorioa hautatu dute elka-



Azken hilabeteotan Errebal Plazan egindako entseguetan zirenak eta ez zirenak egin dira dantzari dagoeneko. OIER ARAOLAIZA



Domeka eguerdiko dantza jaialdian herriko Kezka taldearekin batera Iruñeko Duguna dantza taldea arituko da. FERNANDO RETOLAZA

rrekin lantzeko eta dantzatzeko, Iribasko ingurutxoak eta Imotzeko esku-dantza bertako protagonista bihurturik. Biak Nafarroako dantzak dira eta biak Donostiako Argia dantzari taldeak bildu eta ezagutzera eman zizkieten Euskal Herri osoko dantza taldeei.

1968. urtean Iribasen Juan Bautista Lasarterekin ikasi zuten ingurutxoak Juan Antonio Urbeltzek eta Marian Arregik. Argiarekin egiten zituzten emanaldietan Iribasko ingurutxoaren ondotik Imotzeko esku-dantza egiten zuten. Dantza taldeek biak lotuta jaso bazituzten ere, elkarrekin emate hori Urbeltzen eta Arregiren ekarpena izan zen. Horrez gain, Imotzeko esku-dantza bera Argiakoeke egindako birsortze lana izan da. Ingurutxoak zein esku-dantzak berehalako arrakasta izan zuten herri askotan, tartean Eibarren: “Horrela, 1974an, Eibarko Klub Deportiboaren 50. urteurrenean, Arraten eskainitako dantza-saioan dantzatu zen. Hortik aurrera dantza kuttuna izan da Kezka taldearentzat”. Handik urte batzuetara ere, Eibarko Euskal Jaia- ren 50. urteurrenean, Iribasko ingurutxoak eta Imotzeko esku-dantza

## Kilimak eta Mugi Panderoa taldeek joko dute gaur Untzagako karpako kontzertuan

elkarrekin dantza egitera plazaratu ziren 150 bikote.

### Duguna eta Gathubi

Aurten 75 urte betetzen ari den Iruñeko Duguna dantza taldea izango dugu Euskal Jaian dantza-gonbidatu nagusia. Zapatu arratsaldean Dugunako dantzari gaztetxoek, Eibarkoekin batera, emanaldia eskainiko dute Depor aurrean. Behin domekara helduta, eguerdiko jaialdian Duguna dantza taldeak berak Sanferminetako trokeo-dantzak eta soka-dantza eskainiko ditu. Arratsaldean, bestalde, Dugunako musikariek osatzen duten Gathubi taldeak jarriko du dantzaldiaren musika.

### Azoka beti bezain osatua

Euskal Jaiko egitarauaren barruko zapatuko Artisau eta Baserritarren Azokak bost ordu iraungo du, 10:00etatik 15:00ak arte. Toribio Etxebarria kalean Sosola, Loixola, Mandiola Gañekua eta Egotzako baserritarrak egongo dira (ardi eta ahuntz gazta, barazkiak eta ogi ekologikoa saltzen) eta Eibart elkartekoek 16 postu jarriko dituzte hainbat arlotako produktu eta bitxiak saltzeko. Berritasun gisa, aurten Sormen Tallerra ere presentegongo da, Arrate Kultur Elkar- tearen eskutik.

Jakina, oraingoan ere ez dira faltako herri-kiroletako saioak, Kerman Perez de Heredia, Jon Loiola, Tubi, Zihara Zabala eta Olaia Esnaolaren parte-hartzearekin. Jokin Bergarak eta Eneko Beretxinagak bestelako giroa piztuko dute, Ibon Iza esatariarekin elkarlanean. Eta goiz osoan zehar, Gure Esku Dago ekimenaren eskutik, talo-postua ere han izango da, betiko lez.

Arratsaldeko kale-animazioa Bentzaharreko Mutiko Alaiak taldeak gidatuko du, gaueko kantu-afaria bezala, gauaren azkena Jainaga eta Narbaizari lagatzeko.

# Urtzi Abantzabalegi gogoratzeko eta omentzeko eguna

Urrian laga gintuen Urtzi Abantzabalegi. Bat-batean joan zen eta bere galerak eragindako hutsunea bete ezinik gaude oraindik. Ekainaren 2an, domekan, bera gogoratzeko eta omentzeko egun berezia prestatu dute Eibar Rugby Taldeko lagunek, Urtzi Eguna, eta bertara gonbidatu nahi dute gure herriko errugbiari hainbeste eman dion Urtziri gorazarre egin nahi dion edonor.



BIDEOA



**U**rtzirekin hainbeste ordu pasa zituzten Jon Egiguren eta Unax Blanco izan ditugu gurean eta bere omenez prestatu duten egun bereziaren nondik norakoak kontatu dizkigute. Argi laga nahi izan dute, Urtzi Egunaren ardatzean errugbia egon arren, edonork hartu dezakeela parte bertan eta ekitaldi irekia dela. “Edonor dago gonbidatuta bertan parte-hartzera”, dio Unaxek.

Urtzi Egunaren antolatzaileek diote asko kostatu zaiela ekimena prestatzea, oraindik ere Urtzi oso presente dutelako. “Urtzi joan egin dela onartzea ere asko kostatzen zaigu oraindik”, aitortu digu bikoteak. “Oso kolpe gogorra izan zen. Ez bakarrik errugbiaren munduarentzat, baizik eta lagunentzat, Eibarrentzat eta baita Euskadiko errugbiarentzat ere”, Unaxen berbetan. “Gauzak horrela, erreakzionatzea asko kostatu zaigu”.

Argi zuten Urtzirengatik zerbait egin behar zutela, baina ez zekiten nola edo zer egin. Eta orain, kostata izan bada ere, maitasun handiz prestatu dute ekainaren 2ko egitaraua eta ekimen polita izatea gustatuko litzaieke.

Urtzi ondo ezagututa, “bera zen moduko eguna prestatu dugu, zerbait oso normala”, diosku Jonek. “Urtzik errugbia maite zuen, eta garagardea edaten lagunekin eta familiarekin solasaldian egotea. Beraz, hori ardatz izanda prestatu dugu egitaraua”, azaldu digu Unaxek. “Oso hunkigarria izango da, eta barre eta negar egingo dugu. Momentuan tokatzen dena”.

## Ekainaren 2ko egitaraua

Urtzi Eguna Unben egingo da, Urtzik hainbeste ordu pasa zituen tokian. 11:00etan emango zaio hasiera egitarauari beteranoen partiduarekin. Bertan Eibar Rugby Team eta



Urtzi Abantzabalegiren heriotzak demaseko atsekabea laga zuen herrian eta errugbiaren munduan.

Urtziren lagunak arituko dira nor baino nor eta, egunaren izaera irekiaren erakusle, “aurretik errugbian egin ala ez, edonork joka dezake partidua, nahi izanez gero”, esan digu Unaxek.

Beteranoen ostean, “partidu serioagoa” jokatu da, Unaxen berbetan. Izan ere, Barbarians Urtzi eta Euskadiko Errugbi Selekzio Ofiziala izango dira berdegunean, 12:30etik aurrera. Iñigo Imaz Euskadiko hautatzaileak orain dela egun gutxi eman zuen deialdia eta Eibar Rugby Taldeko hiru jokalaririk ikusi ditzakegu bertan: Ander Gallego, Kepa Zamakola eta Pablo Gimenez. Gainera, herriko zaleei ezagunak egingo zaizkien beste jokalaririk batzuk egongo dira, tartean gaur egun Hernanin jokatzeko duen Jokin Garcia eibartarra.

Seniorren partiduen ondoren, nola ez, hirugarren denbora iritsiko da, 14:30 inguruan. Normalean,

errugbian, partiduen ondoren bi ekipoak tabernan batzen dira eta neurketaz, bizitzaz eta beste konfiantzaz jarduten dute. “Kasu honetan, hirugarren denbora errugbi zelaiara egingo dugu”, azaldu digu Unaxek. Bertan DJ batek musika jarriko du, eta jatekoa eta garagardea ez dira faltako. “Urtziri gustatzen zizaitzen bezala”, Jonek esan digunez. Gainera, Unaxek azpimarratzen du ekintza hau ere irekia dela, ez dela errugbi partidua jokatzeko dutenentzat bakarrik izango: “Hirugarren denborara bakarrik joan nahi izanez gero, ez dago arazorik. Izan ere, omenaldiaren zati garrantzitsuenetako bat izango da”.

### **Erreferentia errugbilari eta pertsona bezala**

Jon Egiguren Eibar Rugby Taldeko presidentea izan da urte askoan eta Unax Blancok urteak eman ditu Urtzirekin errugbian jokatzeko. Ur-

tzi oso gertuko zuten eta oraindik ere zaila egiten zaie bere inguruan berba egitea. Noski, oroitzapen ugari datorrik burura. “Txikitatik ezagutzen dut, taldeko presidentea nintzen Eibartik kanpo jokatzera joan zenean”, gogoratzen du Jonek. “14-15 urte zituen errugbian hasi zenean. Lehenengo entrenamenduan, Unibertsitate Laboralean, gazte ‘pasota’ bat ikusi genuen. Korrika egitera joan ginen eta, presara bidean, Eitzagako iturrian buelta eman zuen. Paso egiten zuen. Eta gero ikusten duzu zer bihurtu zen, ba pentsa. Izan ere, Urtzi erreferentia da herriko errugbiarentzat jokalaririk zein pertsona bezala. Internazionala izan da, Ordizian, Getxon eta Hendaian jokatu zuen... Gainera, Eibar asko sentitzen zuen, eta Eibar eta Eibar Rugby Taldea toki gutzietara eramaten zuen”.

Eta zera gehitzen du: “Urtzik lagatako hutsunea asko igartzen dut.

## Ekainaren 2an Urtzi Eguna ospatuko dute Unben, herriko errugbiaren erreferentea izan denari gorazarre egiteko



Eibar Rugby Taldean badago laga gaituen jendea, jende maitagarria, baina orain Urtzi falta da”.

Unaxentzat lagun mina zen eta “oso gogorra” egin zaio Urtziren heriotza. “Oraindik hunkitu egiten naiz pentsatzearekin bakarrik”, diosku atsekabez. “Horregatik, omenaldi hau egitea beharrezkoa egiten zaigu, behar dugu dolu hori pasatzea. Beste pauso bat ematea. Era berean, egun polita izango dela pentsatzen dut”.

Taldeak bezala egindako urteak gogoratuz, Unaxek zera dio: “Errugbia GKE bat bezala izan zen guretzat. Beste kirol batzuetatik errebotatuta iritsi ginen bertara eta, erdi brometan hasi baginen ere, Urtzi segituan nabarmendu zen. Bere kirola aurkitu zuen. Errugbian taldea behar duzu, bakarrik ez duzu ezer egiten, eskuzabala izan behar zara, indarra behar duzu... Urtzi bikain egokitu zen horretara”, bere iritziz.



Urtzi gogoratzeko zenbait ekitaldi egin dituzte bere heriotzaren ondoren.

### Presentzia zabala

Urtziren heriotzak Euskal Herriko bihotz asko hunkitu zituen. “Ordizia da horren adibide”, esan digu Unaxek. “Punta-puntako taldea da Ordizia eta bertan jende guztiak ezagutzen du Urtzi. Eurentzat ere oso kolpe gogorra izan zen. Berarekin jokatu zuen jendeak oso sakon sentitu du bere galera”.

Urtzi ezagutu duen jende askok lagundu eta parte hartu nahi izan du ekainaren 2ko ekitaldian, antolatzaileek esan digutenez. “Gero, datagatik batzuek ahal izango dute eta beste batzuek ez. Baina horren harira, Urtzirekin izandako sola-

saldi bat gogoratzen dut. Izan ere, iaz Garagardo Festaren antolaketan ibili zen eta esaten zidan ea nork lortuko zuen Errebal Plaza betetzea. Hil zenean, agurra Errebalen eman genion eta zera aipatu nuen bertan: berak bete zuela Errebal. Hor ikusi zen Urtzi zein zen, batez ere pertsona moduan: laguna, langilea eta hainbat gauzatan parte hartzeko prest zegoen mutila”, diosku Jonek.

Orain, errugbia ardatz, lagun handia gogoratzeko eta omentzeko egun berezia izango dute ekainaren 2an eta, gauzak ondo, urteroko egutegian zehaztu nahiko lukete Urtzi Eguna. Ez adiorik, Urtzi.



## Eibar Urko berriro ere txapeldun, oraingoan igotzeko sariarekin

SD Eibar futbol klubeko ordezkarien denboraldia zaila da hobetzea oraingo honetan. 3. RFEF mailako euren multzoetako liderrak izanda, 2. RFEF mailara igotzea lortu duten Vitoria filialari (gizonezkoena) eta Eibar B-ri (emakumezkoena), oraingoan Erregionaleko Ohorezko Mailako Eibar Urkok lortutakoa gehitu behar zaizkie. Gainera, oraingoan bai, txapeldun izatetik aparte,



eta Vitoriaren igoera baliatuz, aipatutako taldeak 3. RFEF Mailan jokatuko du hurrengo denboraldia. Arma-ginek 0-4 gainditu zuten Bergara aurreko jardunaldian eta, horrela, Aretxabaleta bigarrenari bi puntu kentzen dizkiotenez, ziurtatuta dute txapela jantziko dutela. Gainera, lorpen hori eskuratu duen taldean bi eibartar daude, **argazkiko Josu Cifuentes eta Ander Yarza.**

## Galdaramiñoko ibilbide berria ezagutzeko topaketa, hurrengo igoera prestatzeko



“Denon erritmora egokitutako mendi martxa” burutzeko asmoa dute Galdaramiño igoerako antolatzaileek zapatu honetarako. Bertan Galdaramiñoko ibilbide berria ezagutzeko “quedada” edo topaketa prestatu dute biharko, Unbe kiroldegiko parkingetik abiatuko dena goizeko 09:00etan. Ekitaldia doan izango da eta izena emateko galdaramiñoigoera@gmail.com helbidera bidali behar da mezua. Bestalde, Galdaramiño igoera proba hurrengo zapatuan, ekainaren 2an, jokatuko dute, goizeko 09:30etik aurrera, Unbeko kiroldegitik hasi eta bertan amaitzeko. 14. edizioa biziko duen probak 18 kilometro izango ditu, eta igoera 900 metrokoa izango da.

## Adahi - Xania futbol zaletuen biharko Kopako finalean

Neurketa parekatuak erakutsi zituen azken asteburuko jardunaldiak, futbol-zaletuen Kopako finalerdiak jokoan ziren hartan. Adahi Eraieder-ek 1-0 garaitu zuen Malape Taberna, Roblesen golari esker. Eta Xania Tabernak 3-2 irabazi zion BOJ taldeari; horko golak Miranda, Irizar eta Simonek sartu zituzten talde irabazlearentzat, eta Cidek eta Alonsok BOJ-entzat. Kopako finala, beraz, bi talde irabazleen artean jokatuko da datorren zapatuan, 10:00etatik aurrera. Partiduaren amaieran sari-banaketa egingo dute: Kopakoarekin batera, Liga Txapelketako beste sari guztiak ere banatuko dira.

## 7 PC Futbol Ligako SD Eibar-ek ezin izan zuen iazko txapela berretsi

Eibartarrek ezin izan dute iazkoa errepikatu, eta Hercules Paralinpikoak hartu du oraingoan armaginen lekukoa. Garun Paralisia eta Hartutako Kalte Zerebrala dutenen Espainiako Kirol Federazioak antolatutako azken fase hori Madrilen

jokatu zen. Armaginak liga erregularrereko lehen postuan iritsi ziren play off-era, iaz lortutako titulua defendatzeko asmoz, baina penaltietan galdu zuten finalerdietan.

Zapatuko finalerdian Eibar-ek Fundacion Segunda Parteren aurka

bina berdindu eta gero, madrildarrak hobeto aritu ziren penaltietan. Domekan CD AMDDA Malagari 3-2 irabazi zieten eibartarrek, horrela hirugarren sailkatzeko. Finalean, Hercules Paralinpikoak 3-2 gainditu zuen Fundación Segunda Parte.



## Garikoitz Rodriguez hiru-txirloko Gipuzkoako Txapelketako lidergoan dago

Txapelketako bederatzai jardunaldi jokatu ondoren, Asola Berriko ordezkariak hiru txirloko aldea ateratzen dio San Migueleko Angel Ibarluzea bigarren sailkatuari, lau gutxiago ditu Floreagako Santos Muñozek, eta seira dago Elgetako Boni Plaza. Taldekako sailkapena askoz ere borrokatuago dago: San Miguel A-k 124 txirlo ditu, Asola Berri A-k 122 eta Elgeta A-k 120. Jubeniletan ere Asola Berriko ordezkaria da lider, Beñat Oñederra. Emakumezkoetan, bestalde, Enara Montiel eibartarra laugarren da.

Aurreko zapatuan jokatuako Elgoibarko San Pedron jokatuako tiraldian 61 bolarik hartu zuten parte, eta Garikoitz Rodriguez liderra bigarren izan zen. Txapelketako hamargarren jaurtialdia Bergarako San Joxepeko bolatokian jokatu da bihar, 17:00etan.

## Arrakastatsua izan zen 21 ordu iraun zuen Eibar100 Trail Erronkaren ekitaldia

11 korrikalarik burutu zuten Eibar100 Trail Erronkako 100 kilometroak. Guztira 100 lagun inguruk, etaparen batean edo batzuetan, parte hartu bazuten ere, 11 korrikalari izan ziren Eibar100 Trail Erronkako 100 kilometroak eta 4.700 goranzko metatuak 21 ordu pasatxoan burutu zutenek. Azpimarragarria izan zen parte-hartzaileen artean sortutako giro ederra, asko eskertu baitzuten "antolakuntzaren lana mota honetako froga aurrera eramateko egindako lanagatik eta horrelako esperientzia bat bizitzeko aukera eskaintzeagatik".

Lehen etapan (Galdaramiño eta Topinburu) 45 korrikalari izan ziren, bigarrenean (Egoarbitza) 25 izan ziren parte hartzen, hirugarrenean (Aizketa eta Kalamua) 40 izan ziren jardun zutenak, laugarrenean (Illordo eta Azkonabitz) beste 45 izan ziren animatu zirenak, bosgarrenean (Urko) 25eko taldeak hartu zuten parte, eta seigarrenean (Akon dia eta Garagoitxi), azkenekoan, 30 korrikalari izan ziren euripean azken indarrei eutsi ziotenak. Barriakuan gaueko 22:00etan abiatu tako erronka zapatuko 19:20erako gaitututa zegoen.



## Eibar Rugby mailari eusteko promozioko partidua jokatu du bihar Valladoliden

Liga amaitu eta ia bi hilabetera heldu da denboraldiari amaiera emango dion norgehiagoka. Cristina Guntinen taldea bere tokia defenditzen ahaleginduko da Ohorezko Mailara igo nahi duen Complutense Cisnerosen aurrean, zelai neutralean, Valladoliden, bihar 17:30ean hasiko den partiduan. Cisnerosek aurreko asteburuan Getxorekin

27-12 galdu zuen Faduran, modu horretan bizkaitarrek orain dela denboraldi batzuk galdutako maila berreskuratuz. Madrildarrena bigarren aukera izango da gauza bera lortzeko, baina Eibar Rugbykoek mailari eutsi nahi diote. Bestalde, Ohorezko Mailako txapelduna Silicius Majadahonda izan da, finalen A Coruñaiko CRAT-i irabazita.

## Etzi munduko txirrindulari onenak hartuko ditu VI. Eibarko Sari Nagusiak

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako VI. Eibarko Hiria Sari Nagusia - Laboral Kutxa proba jokatuko da domekan gurean. Emakumezkoen UCI Pro Series mailako lasterketako taldeen izen-ematea zapatu arratsaldean egingo da udaltxeko arkupeetan, eta domekan goizeko 09:00etan hasiko da taldeen aurkezpen-ekitaldia eta, ondoren, 10:00etan abiatuko da proba. Lasterketak 116 kilometro eta erdi izango ditu guztira, tartean hiru mendi gain zapaltzeko: 3. mailako Itziar eta Aia aurretik eta, amai-

tzeko, helmugako 1. mailako Arrate. Lasterketak oraingoan Arraten izango duelako amaiera, Euskal Jaia ospatzen denez proba herri erditik ateratzeko ahalegina egin baitute antolatzaileek: "Arrateko igoeraren berritasuna Azitaingo poligonotik egingo dela da, horrela epikotasun puntua emanez probari". Irabazlearen helmugaratzea 13:00ak baino zertxobait lehenagorako espero da. EITB4-k zuzenean eskainiko du lasterketa 11:15etik aurrera, baina streaming bidez ikusi ahal izango da proba osoa klubaren web orritik.



Aurtengo edizioko kartela.



## Iruretagoiena Deporreko apneistak Espainiako txapela ere jantzi du

Klub Deportiboko apneistak mar txoaren 9an Eibarren jokatutako Euskoapnea 2024 txapelketa irabazi ondoren, oraingoan Espainiako txapela ere jantzi du Apnea Estatikoa eta DNF (apnea dinamikoa aletarik gabe) modalitateetan. Sabadellen aurreko asteburuan jokatu zen

Espainiako Apnea indoor txapelketa hori eta Garikoitz Iruretagoienak honako markak egin zituen: lau urtetan irabazi duen estatikoan, 8 minutu; DYN edo bi aletekin egindako dinamikoan, 176'55 metro 5 minututan; eta DNF edo aletarik gabeko dinamikoan, 150'7 metro.

## Ipuruako gimnastak gogotsu asteburu bizi baten aurrean

Ohiko martxari jarraitzen diote Ipurua gimnasia taldekoek, emaitza paregabeekin. Horrela, Nahia Arguiz, Indira del Pino, Maialen Apraiz, Naroa Alonso eta Haizeder Arguizek osatutako senior mailako boskotea 7. postuan sailkatu zen Santanderren jokatutako Espainiako Kopako 1. fasean. Ez zen makalagoa izan oinarri jubenil mailako taldeak lortutakoa, 67 talderen artean 6. postuan sailkatu zelako June Araujo, Elene Ramirez, Emile



Zamakola, Nahia San Martin eta Elene Lazpitak osatutako boskotea.

Asteburu honi begira, bihar Euskadiko Taldekako Txapelketa jokatuko da Leioan. Nahia eta Haizeder Arguizek Espainiako txapelketara sailkatzeko helburua dute, eta senior absolutuko taldeak Espainiako Kopako 2. faserako txartela lortzeko lehiatuko du. Etzi jubenil eta senior mailetakoa Euskadiko Amateur Txapelketa jokatuko da Durangon; Ipurua klubak amateur guztiak sailkatu zituen lehiaketa horretarako (bost talde eta banakako 18 gimnasta).



## Bertsolaritza gazteei gerturatzeko ekimen berria

*Hitza Jolas* izeneko egitaraua sortu dute Eibarko Gaztetxian ekainaren 1erako, Hankamotxak bertso eskolarekin elkarlanean. Manex Astigarraga eta Esti Curielen bakarriketekin hasiko dira, 19:30ean, eta ondoren, 21:00etan, bertso-afaria egingo da, Aroa Arrizubieta, Igor Galartza, Maite Sarasola eta Aitor Tatiegi bertsolariekin. Bakarriketetarako sarrerak egunean bertan egongo dira eskuragarri, Gaztetxian (5 euro). Eta bertso-afarirako sarrerak (egitarau oso-rako balio dute), berriz, Guridi eta Zai-Zoi tabernetan aurretik erosteko aukera dago (15 euro, aukera bega-noa egongo da).

Gaztetxetik azaldu dutenez, “hau bezalako egitarau kulturelekin jarraikotasuna izatea nahi dugu. Gazteak bertso mundura erakartzeko aukera interesgarria dela iruditzen zaigu. Telebistan ikusten den bertsolaritza eta plazetan zein bertso-bazkari eta afarietan egiten dena ez dira berdinak. Bertsotan barre egin eta ondo pasatu daiteke, elkarri adarra jo... ez da dena txapelketa, gai serio eta sakonak lantzea izango. Guretzat bertsoa jolas bat denez, herriari, eta batez ere jende gazteari bideratuta sortu dugu egitaraua”. Harrera ona izanez gero, urtean bizpahiru bat saio antolatzea nahiko lukete, bertsolaritza bultzatzeko.



## Argazkilaritza Maiatzean azken txanpan sartu da

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako *Argazkilaritza Maiatzean*-en baitan, zapatuan egun osoko tailerra eman zuen Tino Soriano argazkilariak Portalean, eta parte hartu zuten 35 lagunek interes handiarekin jarraitu zituzten adituaren azalpen guztiak. Gaur, berriz, Iñaki Markaida bermeotarrak bere erakusketaz egingo du berba, Portaleko erakusketa aretoan, eta bisita gidatua egiteko aukera ere egongo da, 19:00etatik aurrera. Hilabete osoa hartzen duen egitaraua agurtzeko, Argazki Rallya egingo da domekan. Beti bezala, zuri-beltzean eta digitalean parte hartu daiteke, eta egunean bertan egingo da izen-ematea, Klub Deportiboan, 08:30etik 09:30era. Oinarriak Interneten kontsultatu daitezke.



## Jon Moma eta Dei taldearen kontzertua gaur Zai-Zoin

Jon Moma eta Dei zuzenean entzuteko aukera egongo da gaur, 18:30etik aurrera, Ez Dok-Zaizoi tabernan. Jon Moma abeslari eta tronpetista bizkaitarra *Universos* aurkezten dabil, duo formatuan. Eta Dei taldea Mutrikun sortu zen 2022an. Otsailean kaleratu zuen taldeak bere lehen lana, zazpi kanturekin osatuta dagoen *Iluneko sua arrotz* izeneko.



## Xabier Badiola eta Iñaki Larrañaga elkarlanean

Ekainerako eskuragarri izango da Xabier Badiola musikari eta kantari eibartarraren LP biniloa, Gaztelupeko Hotsak-en eskutik. Diskoetxetik diotenez, “disko apart honen doinueta aurkitzen duguna Xabierren ahots eta gitarra dira soilik, tarteka Regina Luisa Zigararen ahots pintzelkada sotilen laguntza bakarraz. Nahiko eta sobera disko txundigarria izan daitekeen bilduma hau osatu ahal izateko. Hitz larriak erabiltzera bultzatzen gaitu Badiolak, aho bete hortz utzi baikaitu gaitu bere estreinako disko honek. *Folk vintagea*, bai”. Bestalde, LParen azalean Iñaki Larrañaga Eibarko artista beteranoak egindako marrazki bat dago, “gairai eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanaren adierazle modura”.



## Gorrotxategirentzat 2023ko Ikerkuntzako Euskadi Saria

Joakin Gorrotxategi hizkuntzalari eibartarrak jasoko du 2023ko Ikerkuntzako Euskadi Saria. Gorrotxategi irakaslea eta hizkuntzalaria da, eta Hizkuntzalaritza Indoeuroparreko katedradun emeritua ere bada, EHU Euskal Herriko Unibertsitatean. Mendebaldeko Europako, bereziki iberiar penintsulako, egoera linguistikoaren ikerketan ardatzu du bere jardueraren



## Eibarren egindako arma zurien erakusketa Museoan

Eguenaz geroztik, *Museoko ertz zorrotzak* arma zurien erakusketa bisitatu daiteke Armagintzaren Museoan. Bertako bilduman pieza bakar batek dauka Eibarko zigilua, baina gure herrian egindako beste pieza batzuk lokalizatu dituzte Euskal Herriko beste bilduma batzuetan: “Horrek aukera ematen du hemengo tailerretatik ateratako armamentuaren ikuspegi osoagoa eskaintzeko”. Inaugurazio ekitaldian, erakusketako parte diren arma, sable eta baioneten erreplikekin esgrima historikoaren erakustaldia egin zuten. Urriaren 20ra arte bisitatu daiteke erakusketa eta sarrera doan da.

## “Un fantasma en la batalla” grabatzeko lanean ari dira


Egunotan Eibar zinema-plato bihurtu da berriz ere, *Un fantasma en la batalla* pelikularen grabaketa egiten ari dira eta. Aste hasieran Arragüeta Zeharra kalean aritu ziren lanean, eta



orain Julian Etxeberria kaleko 8. zenbakian ari dira grabatzen. Etxebizitzaren kanpokaldean euriaren efektua sortzeko eta argiztatzeko erabili behar dituzten garabiak direla eta, inguruan bizi direnei leihoak ixteko eskatu diete. Gaur 16:00etatik 02:00etara ibiliko dira grabaketa egiten, eta astelehenean goizez arituko dira. Agustín Díaz Yanes zuzendariaren film honetako protagonisten artean Susana Abaitua, Ariadna Gil eta Raul Arevalo daude.



AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	8	4		5	7
1	6			3	5
				9	6
	9	8	3	2	
	2	5	4	1	
	8	2			
2	1			4	9
5	9		7	6	

2	7	1	8	6	9
8	9	6	3	2	5
6	3	2	5	7	8
1	6	3	2	5	7
8	9	6	3	2	5
6	3	2	5	7	8
1	6	3	2	5	7
8	9	6	3	2	5
6	3	2	5	7	8
1	6	3	2	5	7

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	2		8	4	
7	9				6
					3
		2	7	1	8
		8	9		
4	9	5		6	
7					
5	3			1	4
		4	9		5

S  
U  
D  
O  
K  
U

soluzioa

2	7	1	8	6	9
8	9	6	3	2	5
6	3	2	5	7	8
1	6	3	2	5	7
8	9	6	3	2	5
6	3	2	5	7	8
1	6	3	2	5	7
8	9	6	3	2	5
6	3	2	5	7	8
1	6	3	2	5	7

# Maiatzak 24/30

## BARIXAKUA 24

### 59. EUSKAL JAIA

**17:00/19:00** Kalian Jolasian. Bizikleta Plaza.

**19:00/21:30** Kale animazioa, Patxangoi elektrotzarangarekin.

**22:30** Kontzertua, Kilimak eta Mugi Panderoa taldeen eskutik. Untzaga plaza.

### KONTZERTUA

**18:30** Jon Moma + Dei. Alderantzizko sarrera. Ez Dok Zaizoi taberna.



### ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

**19:30** Iñaki Markaida Bermeoko argazkilaria bere erakusketari buruz arituko da. Bisita gidatua. Portalea.

### DANTZA

**19:30** Kaxa Dantza. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

## ZAPATUA 25

### 59. EUSKAL JAIA

**10:00/15:00** Artisan eta baserritarren Azoka. Sormen tailerra, Arrate Kultur Elkartearen eta Adarabarren eskutik. Klub Deportiboko arroparen standa.

**11:00/13:00** Eibarko Euskal Jaiko 3. Pala txapelketaren finala. Astelena frontoia.

**12:00/14:00** Herri-kirolak eta bertsolariak. Talopostua, Gure Esku Dago ekimenaren eskutik. Toribio Etxebarria.

**12:00/14:00** Kale animazioa: txistu-poteoa, Eibarko txistularien eskutik, Klub Deportiboaren 100. urteurrena ospatzeko.

**13:00/15:00** Eibarko Trikitilari gazteak.

**18:30** Dantzaldia: Duguna (Iruñea) eta Kezka (Eibar) dantza taldeen eskutik. Toribio Etxebarria kalea.

**19:30/21:15** Kale animazioa: kantu-poteoa, Bentazaharreko Mutiko Alaiek.

**21:30** Kantu afora. Bentazaharreko Mutiko Alaiek, eta erromeria, Jainaga eta Narbaizarekin. Untzaga.

### SEXU BIZI

**00:00/03:00** Sexu Bizi-Gune Morea zerbitzua Eibarko 59. Euskal Jaian. Untzaga.

## DOMEKA 26

### ARGAZKI RALLYA

**08:30/09:30** Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako argazki-rallyrako izen-ematea. Klub Deportiboa.



## TXIRRINDULARITZA

**10:00** VI. Eibarko Hiria Sari Nagusia. UCI Pro Series Emakumezkoa. Untzagatik irten eta Arraten amaituko da, 12:55 inguruan.



### 59. EUSKAL JAIA

**11:00** Eibarko dantzarien eta txistularien batzea, Untzagan. Talde argazkia eta kalejira, Urkizura.

**12:00** Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik Untzagaraino. Dantza ikuskizuneko talde guztiak: gaiteroak, joaldunak, Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak, Kezka dantza taldea eta Duguna Dantza Taldea.

**12:30** Euskal Jaiko dantza jaialdia: Kezka dantza taldea, Eibarko dantzari eta txistulariak, eta Iruñeko Duguna dantza taldea. Untzaga.

**14:30** Herri-bazkaria, Biziminak prestatuta. Untzaga.

**17:30** Erromeria, Gathubi taldearekin. Untzaga.

**19:30** Larrain-dantza popularra. Untzaga.

**20:00** Larrain-dantza popularra. Deportibo parean.

## MARTITZENENA 28

### LIBURU AURKEZPENA

**18:30** "Los años robados", Gema Baqué-ren liburuaren aurkezpena. Portalea.

## EGUAZTENA 29

### DANBORRADA

**19:00** Umeen entsegua. **20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (B. Sarasketa).

## EGUENA 30

### DANTZA

**19:30** Nele Dantza. Ikasturte amaierako ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

**Maiatzaren 26ra arte:**

### ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

- **IÑAKI MARKAIDA:**

"Momentuaren aurretik eta ondotik"

**DIEGO PEDRA:**

"Distopia"

**KATY GOMEZ:**

"Ellas, Elles, They..."

**ADOLFO OLMEDO:**

"Costa Agata"

(Portalea).

- **TXEMA ARTETXE:**

"Un lugar de leyenda"

(Topaleku).

- **Gipuzkoako Nazioarteko**

**51. SARIA**

(Untzaga Gizarte Etxea).

- **ARGIZAIOLA Saria**

(Klub Deportiboa).

- **Eibarko Klub Deportiboa**

**KOLEKTIBOA**

(Portalea taberna).

**Ekainaren 14ra arte:**

- **"HILEKOA(K)" Ainhoa**

**Aldazabal Gallastegi-**

**Skolastikaren erakusketa**

(Andretxea).

**Urriaren 20ra arte:**

- **"MUSEOKO ERTZ**

**ZORROTZAK"**

(Armagingtaren Museoa)

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **25ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00, 20:00
- **27an:** 19:30

**“La Casa”**  
DRAMA



2024/Espainia/83'  
Zuzendaria: Alex Montoya  
Aktoreak: David Verdaguer,  
Oscar de la Fuente, Luis Callejo  
**Komikia / Familiaren inguruan**

## 2 ARETOA

- **25ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00, 20:00
- **27an:** 19:30

**“As Neves”**  
DRAMA



2024/Espainia/83'  
Zuzendaria: Sonia Mendez  
Aktoreak: Andrea Varela,  
David Fernandez, Antia Mariño  
**Nerabezaroa / Desagerpenak**

## ANTZOKIA

- **25ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00, 20:00
- **27an:** 19:30

**“Amigos imaginarios”**  
ABENTURAK



2024/AEB/104'  
Zuzendaria: John Krasinski  
Aktoreak: Ryan Reynolds,  
Cailey Fleming, Fiona Shaw  
**Tragikomedia / Fantastikoa**

• **tartak**  
• **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

LORA ETA LANDARE  
NATURALETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29 *enkarguak etxera*

Ego-Gain, 2

leku berri bat

**TOPA-LEKU**  
*laberna*

egunero  
elkarrekin egoteko

**FUNEUSKADI**  
Funeraria

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xivillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)  
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
Ernuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 16

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MANEX!**  
Atzo 3 urte bete zenuazen-eta. Maitte zaittugu! Patxo haundi bat Aiur, Lea, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **NIKOLE,**  
domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, **CLAUDIA!**  
eguaztenian 12 urte egin zenuazzen-eta. Pilla bat maite zaittugu! Ama, aita, aitxitxa, amama eta, batez be, Jonen partez!



Zorionak, **MALEN!**  
Gaur 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Paulen partez!



Zorionak, **KEPA!**  
2 urtetxo honez-kerro! Ondo pasa zure egunian eta segi oiñ arte bezain alai. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **EKHI**  
Castro, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MARKEL!**  
Gaur 10 urte betetzen dozuz-eta! Musu potolo bat etxekuen eta Hegoiren partez!



Zorionak, **LUCIA**  
(4 urte egingo dozuz ekaiñaren 1ian) eta **JULEN**  
(2 urte beteko dozuz bixar).  
Famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, **AIORA!!**  
Eguaztenian 5 urte bete zenuazzen, neska haundi!!  
Eta **AMATXO**ri be, gaur zeuri tokau jatzu-eta urtiak betetzia. Musu haundi bat famelixaren partez!!!



**Maribel Leibar**

2023/05/29

eta

**Mariasun Leibar**

2024/05/05

Orain arte gurekin egon zarete,  
baina orain gugan zaituztegu,  
barne-barnean eta betirako.

**MAITE ZAITUZTEGU**

Unax, Kris eta Felix

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Eibarko erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea (denak kanpora), balkoia eta 2 komun. Eguzkitsua eta oso egoera onean. 616489540.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 607841549.
- Deban etxebizitza alokagai abuzturako. 3 logela. Garajea eta terraza itsasora bistarekin. 605728340.
- Senar-emazte arduratsuek etxea hartuko lukete alokairuan. 667060292..

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Lokal industriala salgai. 667895597.

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Eibarko erdigunean. 631419458.
- Garajea edo parzela alokatuko nuke lpurua zonaldean edo hortik gertu. 628933542.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak (sozio-sanitario tituluekin) edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. 624828670.

- Emakumea eskaintzen da kamarera edo saltzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. 617383494.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631141454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 638515953.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 688691739.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Orduka. 643933039.

### 4.2. Langile bila

- Sukaldaria behar da ostalaritzako proiektu berri baterako. Bertako ardura nagusia bere gain hartzeko gaitasunarekin. Bidali curriculum: proiektuaostalaritza@gmail.com.
- Emakumea behar da nagusia zaintzeko (akreditazioarekin). 3 ordu egunean. 646206088.
- Gaixo batek zaintzailea behar du etxean laguntzeko. Orduka. luengo41@gmail.com
- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Manikura, pedikura eta depilazioan espezializatua. 603344258.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



# osasun gida

## Medikuntza Estetikoak



**abontza**  
clínica estética

**Medikuntza**  
- Dermatologia estetikoak  
- Auzpeja gaitzetan  
- Beltzak

**Kirurgia**  
- Beltzakak, belarriak...  
- Liposukzioak  
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - Ibaeta 943 206 044

**ANE YESGA**  
CLINICA MEDICINA  
ESTÉTICA

Mediku Estetikoa  
Kirurgia Orokorra  
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entrepilanta A  
625 003 251 info@draanevesga.com  
WWW.DRAANESVGA.COM



## Okulistak



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta  
presbiziaren  
kirurgian espezialistak.

PLAZA BARRIA 2, 2º. TEL.: 943 201 844  
www.clinicanevalde.com



## Podologoak



**ELENA  
AIZPUN  
PODOLOGOA**  
838200124  
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (125 Kolegiatu zenb.)  
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zenb.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zenb.)



**PODOLOGOA**

Maidor  
Lopez  
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tinoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zenb.

## Psikologoak

**PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO  
ARRETA PSIKOLOGIKOA

**GONZALEZ DE MENDIBIL**  
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com  
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psicologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Monragon Lali**  
GOMEZ DIA-ARRASATEZ  
Urkiizu, 13 - behealdea  
Tel. 943206823 / 686859023



**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com



943-206776

# gremioen gida



## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
argentziak  
610 532 922 www.thelecer.com

## ITURGINTZA

**PERU FONTANERO**

iturgintza eta kalefakzio konponketak



telefonoa: 660522521 whatsapp: 605403596

Termo elektrikoaren aldaketa  
Mazparen instalazioa

Erradiadoreetako ihesaren konponketa  
Komunetako ihesaren konponketa/aldaketa  
Etxeko elektrizitate arloa ezagutzen dugu  
Destratatzeak / Pintura lanak

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko  
**AROTZEGIA**

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta beheko  
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeez  
goza dezazun

Azpitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa: 943-120108  
www.irazabal.net

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
HELBIDE  
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
info@cristeriaacha.com eta faxa:  
943 203 903



**943-206776**